



Erdi Aroko hiribildua

DURANGO

Ezaugarriak

Durangoko kaleetan zehar – batez ere Alde Zaharrean– ibilbidea eginez, Erdi Aroko bizimodua irudikatzeko bisita proposatzen dizuegu. Izan ere, **garaiko gizartea nola antolatuta zegoen jakiteko azterna asko gordetzen ditu hiribilduak.**

Bai, Durango hiribildua da. Bizkaiko jaunak sortu zituen hiribilduak XII.mendean eta garai baten harresia izan zuen. Gure ibilbidea ez da lar urrunduko sasoi bateko harresiaren mugetatik. Oraindik zutik dauden eta bakarrak diren elementu historiko garrantzitsuak bisitatzeko aukera eskaintzen du.

Bisitan nabarmentzekoak:

- Andra Mariko elizpea, zutabe gabeko Europako handiena.
- Udaletxea, fatxadako rokoko estiloko margoak.
- Santa Anako arkua, hiribildu zaharreko atea.
- Kurutziagako gurutzea, Durangoko heresiarekin lotu izan den sinboloa.
- Etxezarreta jauregia, Durangoko Arte eta Historia Museoa.



 **Irteera puntua:** Turismo bulegoa, Kurutzesantu museoa

 **Iraupena:** 90 minutu.

 **Zailtasun maila:** Erreza

 **Taldea:** Gehienez 25 pertsona

 **Hizkuntza:** Euskara, gaztelera, frantsesa

 **Prezioa:** 185 € (BEZ barne)

Oharra

Bisita hau zure beharrianetara egokitzen ez bada, egiguzu kontsulta eta aztertuko dugu egokitzeko aukera. Eskaintzen ditugun bisita gidatuez gain, norbere beharrianen neurria bitak prestatzeko aukera eskaintzen dugu. Idatzi edo deitu lasai: info@gerediaga.eus / 946818066